



Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

2017ko abenduaren 24a

Gabon.

Urtero legez, Gabon zoriontsuak opa nahi dizkizuet Erreginarekin, Asturiasko Printzesarekin eta Sofía Infantarekin batera, bai eta 2018rako onena ere.

Ezer baino lehen, bihotzez eskertu nahi dizuet familiarekin eta pertsona maiteekin biltzeko ohitura dugun gau honetan tartetxo bat hartu izana zenbait gogoeta partekatzeke, urtea amaitzear dela.

Ezin uka daiteke 2017 urte zaila izan dela Espainiaren bizikidetzarako, Kataluniako egoera dela eta, batik bat. Geroago helduko diot horri.

Dena den, elkarrekin eraiki dugun Espainia demokratikoarekiko konpromiso sendo eta zintzoa ere erakutsi dute aurten espainiarrek bihotz-bihotzetik.

Izan ere, herri berri eta moderno bat eratuz joan gara azken 40 urteotan, munduko herririk aurreratuenetariko bat, hain zuzen ere:

Behin betiko finkatu dugu demokrazia, eta gai izan gara duela hainbat hamarkada gure askatasunak eta eskubideak urratzeko saialdia gainditzeko.

Europar Batasunaren funtsezko zati gara, eta helburu eta munduaren ikuskera berberak partekatzen ditugu berarekin.

Terrorismoaren aurka, pertsonen bizitza, duintasuna eta askatasuna gailendu daitezten lortu dugu, gure ideia demokratikoen indarraz.

Eta, azkenik, sakon eraldatu dugu gure historia, bizitzako arlo askotan, besteak beste: hezkuntzan eta kulturean, osasunean eta gizarte-

zerbitzuetan, azpiegituretan eta komunikazioetan, edota defentsan eta herritarren segurtasunean.

Hitz batez, bizikidetzaren demokratikoko urte hauetan, eskutik helduta joan dira eskubideak eta askatasunak, Espainiaren aurrerapena eta modernizazioa, eta baita herriaren nazioarteko proiektzioa eta garrantzia ere.

Aldaketa handi hori, hau da, gure historian inoiz ez izandako jauzi hori, posible izan da Espainia irekia eta solidarioa izateagatik, prest dagoena bere baitan ez ixteko; gure ezberdintasunak, aniztasuna eta dibertsitatea onartzen eta errespetatzen dituen Espainia, izaera integratzailearekin; bat etortzeko gogoari zinez eutsi nahi dion Espainia.

Ibilitako bidean hutsegiteak ere izan ditugu, noski; badira oraindik zuzendu beharreko egoera zail eta konplexuak, gizarte osoaren konpromisoa eskatzen dutenak gaindituko baditugu.

Hori guztia gorabehera, eztaba daezina da urteotako emaitzak oso positiboak izan direla. Egoeraz jabetu behar dugu, eta hura balioetsi. Herritarrok merezi dugu; gizarteak merezi du.

Elkarrekin eraiki dugun Espainiaren historia espainiar guztion garaipena da eta. Barne izan behar dugun Espainia, poz eman eta gogobete behar gaituena; eraikitzen, hobetzen eta eguneratzen jarraitu behar duguna, printzipio demokratikoak eta gure bizikidetzaren gizalegezko balioak oinarri izanik: errespetua eta elkarrizketa, alegia.

2017an ikusi dugun legez, sakonki erroturik daude printzipio eta balioak, bai gizartean, bai herritarren eguneroko bizitzan; sustrai sakonak dituzte espainiarren kontzientzietan eta sentimenduetan. Pentsa genezakeena baino askoz ere sakonagoak.

Espainia demokrazia heldua da gaur egun, non herritar orok aukera baitu bere iritzi eta ideiak aske eta demokratikoki pentsatzeko, defendatzeko eta egiaztatzeko, norbere ideiak besteen eskubideen gainetik jarri gabe, betiere.

Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren printzipioak eta balioak errespetatzea eta babestea ezinbesteko dira "askatasuna, berdintasuna,

justizia eta pluraltasun politikoa” bermatze aldera, gure Konstituzioak adierazten duen bezala. Oinarrizko printzipio horiek hausten direnean, hondatu egiten baita bizikidetzak, bideraezin bihurtu arte.

Duela egun batzuk, Kataluniako herritarrek Parlament-eko beren ordezkariak hautatzeko bozkatu dute; katalan guztiengan eragina duten arazoei aurre egin beharko diete orain ordezkariok, aniztasunari eutsiz eta guztion ongizatea abiapuntu izanik.

Liskarrak eta bazterketak ez dute lekurik bidean, jakin baitakigu desadostasuna, zalantza, atsekabea eta pobretze moral, zibiko eta — nola ez— ekonomikoa baino ez dizkiotela ekartzen gizarteari.

Aitzitik, bideak lagungarria izan behar du Kataluniak baretasuna, egonkortasuna eta elkarrekiko errespetua berreskuratu dezan, bere pluraltasuna alde batera utzi gabe, ideiek ez ditzaten familiak eta lagunak aldentu, ezta banandu ere. Kataluniaren entzutea eta irudirik onena birstortzen lagundu behar du bide horrek, bai eta betidanik bereizi izan duten eta bere historiaren unerik esanguratsuenak eskaini dizkioten balioak berresten ere: lidergorako eta ahalegintzeko gaitasuna, espiritu sortzailea eta irekitzeko bokazioa, konpromisorako borondatea eta erantzukizun-sena.

Egoera honek sortu dituen bizikidetzak-arazoak gaindituta ere, ezin ditugu ahaztu Espainiako gizarteak esku artean dituen beste kezka eta desafio garrantzitsu batzuk, horiek ere eragina baitute gure etorkizunean. Labur-labur aipatuko ditut:

Gure ekonomiak eta enpleguak nabarmen egin dute gora, baina lanpostu egonkorrak sortzeko lehentasunezko helburu izan behar du beti. Gizarte-desparekotasunei aurre egiteko betebeharra eta ardura ere ezin dira alboratu, batez ere arestiko krisi ekonomikoak berekin ekarri dituen ondorioak ikusita; krisiak, izan ere, familia askori kalte egin die, eta kolokan jarri du gazte ugariaren etorkizuna.

Terrorismo jihadistak mehatxua izaten jarraitzen du mundu osoan zehar; aurten, gu ere izan gara gaitz horren zuzeneko biktima, Bartzelonan eta Cambrilsen, hain zuzen ere. Espainiarrok ondo asko dakigu hura garaitzeko nahitaezko direla batasun demokratikoa, zuzenbide-estatuaren irmotasuna eta nazioarteko lankidetzak eraginkorra. Eta lortuko dugu, biktimak une oro errespetatuz eta gogoan izanik.

Ustelkeriak gizartearen kezka nagusietako bat izaten jarraitzen du; hura errotik kentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatzen dute herritarrek, seguru egon daitezen diru publikoa behar bezala kudeatzen dela.

Bestalde, Europa inoiz ikusi gabeko bidegurutzean dago gaur egun. Europar proiektuak bizitasun eta bultzada handiagoak behar ditu une honetan, eta Espainiak horren protagonista izan behar du berriz ere, haren zati den aldetik. Europak —eta, hartara, baita Espainiak ere— erronka globalei aurre egin behar die, inongo ahultasunik edo zatiketarik gabe, batasunaren indarra baliatuta baizik.

Ingurumenaren babesaren eta klima-aldaketaren aurkako borroka ere ezin ahanztuzko auziak dira, berekin dakartzaten eta dagoeneko pairatzen ari garen arriskuak direla bide. Arazo horiez kontziente izan behar dugu, eta askoz ere gehiago lagundu. Eta Espainiak tinko eutsi behar die planeta osoan eragina duen arazoaren harira hartutako konpromisoari; behar-beharrezkoa da premiazko konponbide globalak aurkitzea.

Beste hainbat kezka ditugu —jakina—, baina gau honetan ez ditut genero-indarkeria jasaten duten emakumeak bazter utzi nahi, beldurrak bultzatuta isilik daudenak. Gure sentimenduak barru-barruan mintzen dituen gaitz onartezina da genero-indarkeria, lotsarazten eta sumintzen gaituena. Euts diezaiogun irmotasun eta babes politikoari biktimen alde egiteko; herritarrok batera egin behar diogu aurre gure bizikidetzan narriatzen ari den indarkeria kriminal eta koldar horri.

2018 iristear da, eta gure herria eraikitzen jarraitu behar dugu, historia ez baita gelditzen. Eta ez gara honaino heldu etorkizunaren beldur izateko, hura sortzeko baizik.

Ziur nago inork ez duela nahi Espainia mugiezin edo konformista izan dadin. Aitzitik, modernoa eta erakargarria izan behar du, pozteko arrazoi; Espainia lasaia baina, aldi berean, mugimenduan dagoena, eboluzionatzeko eta denbora berrietara egokitzeko prest.

Egon gaitezen harro —konplexurik gabe— erdietsi dugun guztiarekin, denon meritua da eta; sinets dezagun betidanik lotu gaituen horretan, garen horretan eta, ororen gainetik, elkarrekin lor dezakegun horretan, gure uste eta gaitasunetan konfiantza osoa izanik. Bide horretatik

jarraituz gero, eta energia guztia biltzen badugu, ziur nago datorren urtea —eta ondoren etorriko direnak— askoz ere hobea izango dela. Zalantzarik gabe.

Hori opa dizuet gau berezi honetan.

Eskerrik asko. Eguberri on, Feliz Navidad, Bon Nadal, Boas Festas.

Gabon. Eta urte berri on.